



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena**  
**Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa**  
**Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailak 10**

**Vitoria-Gasteiz, 10 de septiembre de 2019**

## Lehendakaritza

**TERRORISMO JIHADISTAREN NAZIOARTEKO I. KONGRESUA.  
ERANTZUN KRIMINOLOGIKOAK IZENEKO KONGRESUA EGITEKO 30.000  
EUROKO LAGUNTZA**

Gobernu Kontseiluak gaur egindako bileran Asociación Vasca de Criminólogos - Kriminologoien Euskal Elkarteari (AVC-KEE) diru-laguntza zuzena ematea erabaki du, aurki Irunen egingo den *Terrorismo Jihadistaren Nazioarteko I. Kongresua. Erantzun kriminologikoak* izeneko kongresua antolatzeko. 30.000 euroko laguntza izango da, eta Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzako Idazkaritza Nagusiaren eta Segurtasun Sailaren artean emango dute.

Kongresua Irungo Ficoba barrutian egingo da, irailaren 11tik 13ra, UPV/EHUREN Uda Ikastaroen esparruan.

Bertan, hainbat diziplinatako —kriminologia, biktimologia, antropologia, soziologia, politologia, epailetza, segurtasuneko profesionalak, psikologia, psikiatria, gizarte-heziketa eta abar—profesionalek hartuko dute parte, terrorismo jihadistaren fenomenoaren hainbat alderditatik eztabaidatzeko.

Kongresuaren lehen edizio hau Kriminologoien Euskal Elkarteak eta Kriminologiaren Euskal Institutuak antolatu dute, estatuko zein nazioarteko hainbat erakunde publikorekin eta pribaturekin elkarlanean.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

### GOBERNUAK % 0,25 IGO DU EUSKAL LANGILE PUBLIKOEN SOLDATA

- **Lansarien igoerak aurrekontuan 5,5 milioi euroko inpaktua izango du, eta aurtengo iraileko nominan izango du eragina; erabakiak atzeraeraginezko ondorioak izango ditu, 2019ko uztailaren 1etik**
- **Gainera, urtea amaitu aurretik, Gobernuak hileko soldataren % 1,5 igoko du Itzarri-BGAEren ekarpena**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Euskal Autonomia Erkidegoko langile publikoen soldata % 0,25 igo ahal izateko akordioa onetsi du. Administrazio Orokorrean (Lakua), Segurtasunean, Hezkuntzan, Justizian eta Osakidetzan lan egiten duten 70.000 pertsona inguruk, aurtengo irailetik aurrera, % 0,25 gehiago kobratuko dute. Lansarien igoera horrek atzeraeraginezko ondorioak izango ditu, 2019ko uztailaren 1etik.

Soldata-igoera horrek aurrekontuan 5,5 milioi euroko eragina izango du. Otsailan, bestalde, % 2,25eko soldata-igoera onetsi zen ([2/2019 LEGEA, otsailaren 14koa, lansarien arloan 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurriei eta luzapenaren beste alderdi batzuei buruzkoa](#)), eta, azken igoera horren bidez, Eusko Jaurlaritzak oinarri juridiko sendoa eduki eta berehala soldata beste % 0,25 igotzeko hartutako konpromisoari erantzun nahi zaio.

### ITZARRI-BGAEREN EKARPENA

Era berean, Eusko Jaurlaritzak Itzarri-BGAEren ekarpena hileko soldataren % 1,5ean igoko du, Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean ordezkariak duten zentral sindikalekin 2019rako lansarien esparruaren negoziazioan konprometitu zen bezala. Neurri hori hurrengo Gobernu Kontseilu batean onetsiko da, urtea amaitu aurretik.

### FUNTZIO PUBLIKOAREN MAHAI OROKORRA

Eusko Jaurlaritzak, aurtengo irailean, Funtzio Publikoko gehiengo zentral sindikalei dei egingo die, Mahai Orokorrearen bilera bat egiteko, *2020ko Aurrekontuen Lege Proiektuan* jaso beharreko lansarien esparrua negoziatzeko. Lege-proiektua Gobernua ari da prestatzen, eta datorren urrian onetsi eta bidaliko dio Eusko Legebiltzarrari.

## Hezkuntza

### **606 MILIOI IKASTETXE PRIBATUEN HEZKUNTZA-ITUNAK FINANTZATZEKO**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du, Euskadiko unibertsitatez kanpoko ikastetxe pribatuen 2019-2020 ikasturteko hezkuntza-itunak gauzatu ahal izateko gastu aurreikuspena. Gastu aurreikuspena 606.110.422,89 eurokoa da, 7.157 gela ituntzeko.

2019ko otsailean, 2019-2020 ikasturtean itundu beharreko gelen eskariak aurkezteko epea ireki zien Hezkuntza Sailak itunpeko ikastetxeei. Honako ikasketak hauek itundu daitezke: Haur Hezkuntza (bigarren zikloa), Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa. Era berean, Hezkuntza Bereziko gela egonkorak eta zereginen ikasketarako gelak ere ituntzen dira.

Eskaera horien ebazpena egin ondoren, 2019-2020 ikasturte honetan 314 itunpeko ikastetxe daude Euskadin: 34 Araban, 160 Bizkaian eta 120 Gipuzkoan. Orotara, 7.157 itunpeko gela batzen dituzte guztien artean, gorago aipaturiko unibertsitatez kanpoko hezkuntza mailetakoak.

Hezkuntza-itunen bidez, ikastetxe pribatuetako irakaskuntza-jardueratik eratortzen diren gastuak finantzatzen dira, aurrez aipaturiko etapa horietan. Ikastetxean osaturiko talde kopuruaren arabera kalkulatzen den diru-kopuru hori, pertsonal gastuetara (izan irakasle edo ez irakasle), nahiz ikastetxeen ohiko funtzionamenduak eragindako gastuetara bideratzen da.

## Hezkuntza

### 1,2 MILIOI EURO ESKOLATZE OSAGARRIKO PROGRAMETARAKO

- **Deialdi honen bidez, Eskolatzeko Osagarriko 19 programa lagundu ziren diruz iaz. 230 ikasle parte hartu zuten horietan**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Eskolatzeko Osagarriko Programak garatzeko diru-laguntzetarako deia egiten duen Agindua. Laguntza ekonomiko hauek itunpeko ikastetxeei, irabazi asmorik gabeko entitateei, mankomunitateei, udalei edo azken hauek sortutako entitateei zuzenduak dira, betiere 2019-2020 ikasturtean Eskolatzeko Osagarriko Programak abian jartzeko asmotan badira eta horretarako proiektua aurkezten badute. Deialdi honek 1.211.250 euroko diru-kopurua du orotara, eta diruz lagunduriko programa bakoitzerako 63.750 euro bideratuko ditu gehienez.

**Eskolatzeko Osagarriko Programak** hezkuntza-premia bereziak –eskolara moldatzeko zailtasunei lotutako egoera larrietatik sortutakoak- dituzten ikasleei laguntzeko sortuak dira, hain zuzen ere beren hezkuntza-prozesuen aurrean, ikaskideen eta irakasleen aurrean eta gizarte-ingurunearen aurrean jarrera positiboak garatzen laguntzeko. Programen xedea hau da: aipaturiko ikasleei, berriazko taldeetan antolatuta, beren garapen pertsonalerako, berriro eskola-sistema arruntera egokitzeko edo ondoren lanbide-hastapeneko ikasketei (horiek helduaroan eta bizitza aktiboan sartzeko gaituko dituzte) ekiteko baliagarriak diren ikaskuntzak eskaintzea.

Edonola ere, tailerren bidez curriculumeko alor instrumentala lehenesten dute programok, betiere ikasleen beharretara egokitutako metodologia erabiliaz. Programa hauek berritzaile izaten eta ikasleen jakingura piztuko duten jarduerak burutzen egiten dute ahalegina. Era horretan, ikasleen motibazioa lortzen dute, hezkuntza-ibilbidean jarrai dezaten.

Programa hauek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduak dira, programa hasten den urteko abenduaren 31n gehienez 15 urte beteta dituzten ikasleei zuzenduak. Aldi baterako neurri gisa ulertu behar da, inoiz ez behin betiko, ikaslea ahal bezain laster sistema arruntean berriro sartzera lortu nahi baita. Era berean, ezohiko neurria ere bada, DBHren ohiko araubidean aniztasunari erantzuteko aurreikusitako gainerako neurriak agortu ondoren aplikatzekoa, hala nola, hezkuntza-indagarriak, curriculumak egokitzekoak edo berriazko parte hartze proiektuak.

#### **19 programa, 230 ikasle**

Hezkuntza Sailak bere ekimenez garatzen ditu programa hauek beharrezko diren ikastetxe publikoetan, baina gorago aipaturiko entitateekin lankidetzan ere aplikatu daitezke. Hain zuzen ere, aurreko 2018-2019 ikasturtean Eskolatzeko Osagarriko 19 programa lagundu zituen diruz Hezkuntza Sailak deialdi honen bidez, guztiak ere Euskadiko 17 entitatek garaturikoak. Orotara 230 ikasle hartu zuten parte 19 programa horietan.

## Hezkuntza

### **1,225 MILIOI EURO ULIBARRI HIZKUNTZA-NORMALKUNTZARAKO PROGRAMARAKO**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza Sailburuaren proposamenez, onartu du 2019-2020ko ikasturterako gehienezko diru-laguntzak zehazten dituen Agindua, hizkuntza-normalkuntzarako Ulibarri Programan parte hartzen duten edo hartu nahi duten ikastetxeei zuzendutakoak. Halaber, Programan sartzeko edo jarraitzeko baldintzak zehaztu eta dedikazio-orduak finkatzen dira.

Ulibarri Programako ikastetxeetako hizkuntz normalkuntzarako proiektuek eskoletako egunerokoan euskararen erabilpena sustatzea dute helburu nagusia. Ikastetxe hauek, eragile guztien artean euskararen erabilera sustatzeko proiektu bat adosten dute. Ikastetxeko Normalkuntza Proiektua egiteko, egoera aztertu eta diagnosia egiten dute zentro hauek. Ondoren, lau urterako proiektua (HNP) zehazten dute, eremuz eremu honako hauek definituz: helburuak, abiatuko diren jardura motak, arduradunak, ebaluaziorako adierazleak eta denboralizazioa.

Ulibarri Programaren baitan garatzen diren hizkuntza normalizazioko proiektuak ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren loturan diseinatuko dira. Izan ere, egun pentsaezina da euskararen erabilerarako normalizazio proiektu baten garapenak harremanik ez izatea goiko maila batean dagoen Hizkuntza Proiektuan hartzen diren erabakiekin. Era horretan, normalizazio proiektuak (orain arte eskola-orduetatik kanpo eragiten zuenak) eskola-orduetan ere eragin behar du, euskararen didaktikarekin eta erabilitako metodologiarekin erlazionatuta dauden eremuak indartuz.

2018-2019 ikasturtean, Euskadiko 410 ikastetxek hartu dute parte Ulibarri programan: 232 ikastetxe publiko eta 178 itunpeko.

## Hezkuntza

### **1,52 MILIOI EURO GAILU DIGITALAK EROSTEKO DIRULAGUNTZATAN**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2019-2020 ikasturtean gailu digitalak erosteko diru-laguntzak deitzen dituen agindua. Gailu horiek Euskadiko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiten ari diren ikasleek erabiliko dituzte ikasgeletan. Deialdi honek 1.528.000 euroko zenbatekoa du.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute, 2019-2020 ikasturte honetan Sare\_Hezkuntza Gelan sarean dauden ikastetxe publiko edo itunpekoetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa ikasten ari diren ikasleek; ikasle horiek beka baten onuradun izan beharko dute, ikas-materialaren osagaian, 2018-2019ko ikasturteko beka-deialdian.

Gainera, diru-laguntza eskuratu ahal izateko, eskuratu duten dispositibo digitalak bat etorri beharko du ikastetxeak eskatzailearen talde guztiarentzat aukeratu duenarekin, beti ere Aginduak zehazten dituen ezaugarri teknikoak betez (pantailaren tamaina, memoria gaitasuna eta sistema eragileari dagozkion ezaugarriak). Gailuak 2018ko urrilaren 3tik aurrera eskuratu beharko du izan. Ikasle bakoitzeko gehienezko diru-laguntza 200 eurokoa izango da gailua erosteko.

#### **Sare\_Hezkuntza Gelan**

Sare\_Hezkuntza Gelan proiektuak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesurako material eta baliabide digitalak sortzea bultzatzen du, horiek ikasgelan erabiltzea, hori guztia gauzatu ahal izateko beharrezko den formazio teknologiko eta pedagogikoa ematearekin batera.

Sare\_Hezkuntza Gelan proiektuak bi ikasturteko iraupena du. Hortaz, programan parte hartzen duten ikastetxeek hezkuntza digitalaren eredia dagokion zikloaren hasieratik amaierara arte eskaintzen dute, dela Lehen Hezkuntzan, DBHn edo Batxilergoan. Hautatutako ikastetxe berriek eta aurreragoko deialdietan hautatuak izan zirenek Sare\_Hezkuntza Gelan sarea osatzen dute.

Ikastetxe hauek unitate didaktiko bat edo gehiago irakasten dituzte modalitate digitalean, arlo edo ikasgai guztietan, hautatzen dituzten kurtsoetako talde guztietan.

## Hezkuntza

### **300.000 EURO LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLEEN GAURKOTZE ZIENTIFIKO ETA TEKNOLOGIKORAKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2019ko ekitaldian itunpeko ikastetxeetako Lanbide Heziketako irakasleen gaurkotze zientifiko eta teknologikoa sustatzeko –enprekin lankidetzan- diru-laguntzak deitzen dituen agindua.

Lanbide Heziketako irakasleen gaurkotze zientifikoa eta teknologikoa, ikastetxe eta enpresaren arteko lankidetzaren bidez sustatzeko jarduerak bultzatzea du deialdi honek helburu, 300.000 euroko zenbateko globalarekin. Lankidetzaren hori honetan oinarrituko da: irakasleek enpresan behatzea bai produktuen bai ekoizpen-prozesuen garapena eta horietan enpresak hobekuntza-aukera bihurtu nahi dituen erronkak detektatzea. Ikastetxearen eta enpresaren arteko berrikuntza-proposamen baten bidez ebatzen saiatuko dira erronka horiek eta TKGUNE programan txertatuko da. Hori guztia TKNIKAKo (Lanbide Heziketari Aplikaturako Ikerketa eta Berrikuntzako EAeko Zentroa) Lanbide Heziketari Aplikaturako Berrikuntza Arloak koordinatuko du.

Honen guztiaren helburua da irakasleek kompetentzia zientifiko eta teknologikoak eguneratzea beren espezialitateari dagozkion ekoizpen-sektoreetan planteatzen diren erronka errealetan lan eginez. Ondoren, irakasle horiek ezagutza hori guztia ikastetxeko ikasleei eta gainerako irakasleei transmitituko diete; hartara, horrekin ekarpena egingo zaio Lanbide Heziketako irakasleen eta ikasleen STEAM gaitasunen garapenari.



## Hezkuntza

### **5.000 EURO FIRST LEGO LEAGUE ARKANSASEN PARTE HARTZEKO**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran hartu du “Asociación Tecnoclub Lorditronic”-i 5.000 euroko dirulaguntza zuzen bat emateko erabakia, talde honek FLL (First Lego League) lehiaketaren nazioarteko fasean parte har dezan, Arkansasen (AEB).

First Lego League lehiaketa zientifiko-tekniko bat da, urtero 80 herrialdetan ospatzen dena, 230.000 parte hartzaile baino gehiagorekin. FLL sailkapen torneo ezberdinetan antolatzen da; eskualdekoak, nazionalak eta nazioartekoa. Taldeak hiru eremutan baloratu ohi dira: ikerketa proiektu bat garatu behar dute, oraingoan, uraren zikloan parte hartzea hobetzeko soluzioen bilaketan oinarrituta. Bestalde, talde bakoitzak lego piezekin robot bat egin behar izaten du lehiaketa mahai baten ahalik eta misio gehien egin ditzan, eta azkenik, talde lana, komunikazioa eta parte hartzea bezalako gaitasunak ere baloratzen dira.

Lordotronic familia talde bat da, lau ikaslek (bi neska eta bi mutil) eta bi entrenatzailek osatua. Lordotronic taldeak Euskadiko finalean parte hartu zuen joan zen otsailean, eta baita Estatu mailako finalean ere Tenerifen, martxoaren 23 eta 24an. Tenerifeko finalean aurkeztu zuten proiektua honetan zetzan: espazioan ahalik eta autonomia gehien lortzea Lurreko laguntzarik gabe. Taldeak, inspirazio kategorian lehenengo postua lortu zuen, eta hau dela eta, nazioarteko mailan egiten den lehiaketara pasatzea lortu, hain zuzen ere Arkansasekora (AEB).

## Osasuna

**OSASUN SAILAK BERRIKUNTZA + IKERKETA + OSASUNA EUSKO  
FUNDAZIOAREN, BIOEF, BIRIKAKO MINBIZIAREN IKERKETA-  
PROIEKTUETARA BIDERATUKO DITU 2018ko EITB MARATOIA EKIMEN  
SOLIDARIOAREN 302.000 EUROAK**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du, Osasun Sailak proposatuta, 2018ko EITB Maratoia ekimen solidarioan lortutako 302.328,79 euroak erabiltzeko laguntzen deialdia. Laguntza horiek Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioaren, BIOEF, birikako minbiziaren ikerketa-proiektuetara zuzenduko dira.

BIOEF laguntzen deialdi horren bidez, eta EITB Maratoiari esker eta elkarteen, erakundeen, entitateen eta banako herritaren elkartasunari eta laguntzari esker, aurrera egin nahi da birikako minbiziaren ikerketan, gure gizartean minbizi-kausa nagusia den heinean.

Zehazki, birikako minbiziaren ikerketa biomedikoko proiektuak garatuko dira. Proiektu horiek barnean hartuko dituzte oinarritzko ikerketa (gaixotasunari zuzentzen zaiona), ikerketa klinikoak (pazienteari zuzentzen zaiona), ikerketa epidemiologikoa, osasun publikoa, osasun-zerbitzuak eta osasunaren hobekuntzara bideratutako garapen teknologikoa edo ikerketa biomedikoko prozesuen eta teknologien garapena.

Eusko Jaurlaritzak eta Osasun Sailak lehentasuna ematen diote ikerketa sustatzeari eta, horren bidez, jakintza areagotzeari, osasun-zientzia sustatzeari —izatez osasun-zientzia aurrerapen handiak ari da lortzen ikertzaileen ahaleginari eta talentuari esker—, eta Euskadin aberastasun eta garapen sozioekonomikoa sortzen laguntzeari. Uste oso horretan, hain zuzen ere, oinarritzen da ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko Osasun Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren osotasunaren apustu estrategikoa, gure osasunaren arloko emaitzak hobetzeko eta Euskadiko garapen ekonomikoa sustatzeko bidea izango den aldetik. Apustu hori **Osasun Arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategia 2020** dokumentuan jaso da.

## Osasuna

### OSASUN SAILAK 93.000 EURO BIDERATZEN DITU ESKOLA ESPARRUKO ELKARTE ETA KOOPERATIBETARAKO, 2019-2020 IKASTURTEAN JARDUERA FISIKOA SUSTATZEKO

Eusko Jaurlaritzak gaur goizean onartu du, Osasun Sailak proposatuta, Guraso Elkarteei, ikasleei eta Irakaskuntza Kooperatibei zuzendutako 93.000 euroko laguntzen deialdia. Laguntza horiek bideratuko dira eskola-ingurunean jarduera fisikoa sustatuko duten ekimenetara, betiere ikasleen osasuna hobetzeko helburuarekin.

Laguntza horiek biltzen dira Eusko Jaurlaritzak eta Osasun Sailak jarduera fisikoaren sustapenarekin eta sedentarisismoaren prebentzioarekin duten konpromisoaren barruan, osasunarentzat onuragarriak diren heinean —2013-2020 Osasun Planaren eta Euskadi Mugiment Estrategiaren helburuak dira horiek—.

Jarduera fisikoa ikasleen osasun fisikorako onuragarria izateaz gain, ongizate psikikoa errazten du eta memoria eta errendimendu akademiko hobetzen ditu, baita pertsonen arteko harremanak ere.

Testuinguru horretan, deialdi honen bidez, helburu hauek dituzten proiektuen garapena finantzatuko da 2019-20 ikasturtean:

- ✓ Hiri-espazioek joan-etorri aktiboetarako eta seguruetarako eskaintzen dituzten aukerak baliatzera zuzenduko diren **eskola-bideak** sortzea eta dinamizatzea.
- ✓ **Eskoletako jolastokiak** dinamizatzea eta/edo jolasteko aukerak, jarduera fisikoa eta pertsonen arteko harremanak sustatuko dituzten espazio **bihurtzea**, ikastorduetan zein ikastorduez kanpo.
- ✓ **Jarduera fisikoa familian** egin dadin sustatzea, hala nola mendirako txangoak, bizikleta-irteerak, patinetan paseatzea edo familiako joko-jarduerak.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 2.260.000 EURO ZUZENDU DITU EUSKAL KULTURA-ONDAREA BALIARAZI ETA IKERTZERA BIDERATUKO LAGUNTZEN BI DEIALDITARA**

- **Ondarea baliaraztera zuzendutako dirulaguntzen aurrekontua 2.100.000 eurokoa da aurten; 21 ekimen zehatzi laguntzea ahalbidetu zuten iaz**

Gobernu Kontseiluak 2.100.000 euroko dirulaguntza deialdi bat onartu du, bere gaurko bileran, euskal kultura-ondarea baliarazteko dirulaguntzetara zuzenduta, baita beste deialdi bat ere, 160.000 eurokoa, euskal kultura-ondarea ikertzerara bideratutakoa. Deialdi horietako lehenaren bidez kultura-ondarearekin lotutako 21 proiektu diruz lagundu ziren iaz. Ikerketari laguntzera bideratutako deialdiak, bestetik, ondarearen inguruko 11 ikerketa-proiektu babestu zituen.

Udalak eta eragileak dira kultura-ondarea baliarazteko laguntzen hartzaileak. Horien bitartez, babesa emango zaie 2019-2021 ekitaldietan kultura-ondarea baliarazteko ekimenei.

Dirulaguntza horien artean, bi laguntza-ildo hauek bereizten dira:

- Euskal kultura-ondarea defendatu, aberastu, babestu eta sustatzeko dirulaguntzak.
- Kultura-ondarean eragina duten hirigintza-plangintzako tresnak idatzi eta aldatzeko laguntzak.

Dirulaguntzen iazko deialdiaren bitartez, hainbat udal edo eragilek bultzatutako 21 proiektu babestu ziren. Hona deialdi horren bitartez babestu ziren proiektuetako batzuk: Otxandioko pilotalekua eraberritzea, Zarautzeko Modelo zinema birmoldatzea, Trapagarango Aiestaran baserriaren erreforma, Zalduondoko San Adrian basilizaren ingurunea berrurbanizatzea edo Orioko Mutiozabal ontziola berritzea.

### **Ondarearen ikerketa**

Bestalde, euskal kultura-ondarearen esparruan ikertzerara zuzendutako laguntzen helburua da ikertzaileei baliabideak ematea, aukera izan dezaten “esparru horretan proiektuak garatzeko eta, horrela, ondarearen osotasuna babesten laguntzeko, baita hura aberastu eta hedatzen laguntzeko ere”.

Dirulaguntza horiek baliatuta, laguntzen azken deialdiaren bitartez, kultura-ondarearekin lotutako 11 ikerketa-proiektu lagundu ziren. Ikerketak, besteak beste, esparru hauetan egin ziren: Euskal Autonomia Erkidegoko arkitektura-ondare frantziskotarra, Simon Berasaluzeren artea, ondarearen babesa generoaren ikuspegitik edo euskal burdinola aurrehidraulikoak.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 610.000 EURO ONARTU DITU EUSKADIKO IRAKURKETA SAREAN IRAKURZALETASUNA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK BULTZATZEKO**

- **Irakurzaletasuna bultzatzeko deialdiari dagokionez, iaz 155 udal erakunde jaso zuten dirulaguntzaren bat**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak 260.000 euroko partida bat onartu du, bere gaurko saioan, irakurzaletasuna sustatzeko eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi publikoetako zerbitzuen erabilera bultzatzeko. Dirulaguntza horiei esker iaz 155 proiektu lagundu ziren. Era berean, gaurko saioan 350.000 euroko beste deialdi bat onartu da, liburutegi publikoetan teknologia berrien ezarpena eta garapena diruz laguntzeko. Bigarren deialdi honen bidez iaz 99 udalerritako liburutegiak diruz lagundu ziren.

Deialdi hauek ondokoei diruz laguntzeko zuzendutakoak dira: Euskadiko Autonomia Erkidegoko udalei, liburutegi publikoetako titularrei, eta baita udal liburutegi publikoen eremuan eskumena duten tokiko erakundeei edo eremu horretan funtzioak esleitu zaizkienei. Ezinbesteko baldintza da Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarekoak izatea. Lehenengo partidaren kasuan, irakurketaren sustapenerako jarduerak bultzatzeko diren dirulaguntza horiek ezin izango dute 30.100 eurotik gorakoak izan erakunde onuradun bakoitzeko, eta dirulaguntza gisa jasoko duten kopuruak ezin izango du eskatutako gastuaren zenbatekoaren % 75 gainditu.

Joan den urtean laguntzaren bat jaso zuten 155 udal erakundeetatik, euskal hiriburueta zuzendu ziren diru-kopuru handienak: Bilbo (11.772 euro), Gasteiz (10.535 euro) eta Donostia (Donostia Kulturak 11.772 euro jaso zituen). Euskadiko Irakurketa Sarearen baitako liburutegietan teknologia berriak sustatzea helburu duten laguntzei dagokienez, iaz 99 udalek jaso zituzten dirulaguntzak. Deialdi honen helburua da Sareko liburutegiak dituzten baliabideak eguneratzea; Euskadiko Irakurketa Sarean 205 udalerritan kokatutako 300 liburutegi daude.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 670.000 ZUZENDUKO DITU EUSKAL LIBURUTEGIEI FUNTSAK EROSTEN LAGUNTZEKO**

- **EAEko 183 udalerrik jaso zuten laguntza ekonomikoren bat iazko deialdiari eske**

Gobernu Kontseiluak 670.000 euroko partida onartu du, bere gaurko bileran, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea osatzen duten liburutegiei funtsak erosten laguntzeko. Laguntza horiek liburutegi sortu berriek lote fundazional berriak erosteko izan daitezke edo gainontzeko liburutegiek ale gehiago eros ditzaten. EAEko 183 udalerrik jaso zuten dirulaguntzaren bat iaz deialdi honi esker.

Euskadiko Liburutegien 11/2007 Legeak, urriaren 26koak, ezarritakoa betetzea da dirulaguntza hauen helburua. Araudi horren arabera, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak funtsen zuzkidurarako laguntza-programak ezarri behar ditu urtero bere aurrekontuetan, Sailaren eskumena baita Liburutegien Zerbitzua kudeatzea, eta baita Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalari dagozkion funtzioak garatu eta haiek ekitea ere.

Dirulaguntza horiek bi modalitate jasotzen dituzte:

- Liburutegi sortu berriek lote fundazionalak erosteko dirulaguntzak. Laguntza-mota horretarako 50.000 euro zuzenduko dira.
- Orain dauden liburutegietako funtsak berritzeko dirulaguntzak. Partida honetan 620.000 eurokoa izango da diru-zuzkidura.

Iaz 183 udalerrik dirulaguntzaren bat jaso zuten bigarren modalitatearen bitartez; halaber, Gasteizek eta Laudiok bi modalitateen bitartez jaso zituzten dirulaguntzak.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea Euskadiko udal-liburutegi guztiek osatzen dute, bai eta udal-titularitatekoak ez diren zenbait liburutegi ere (Eusko Jaurlaritza, Artxibo Historikoa, HABE, Lazkaoko Beneritarren Artxiboa, Zarauzko Photomuseuma...). Une honetan 205 udalerritan kokatutako 300 liburutegi baino gehiagok osatzen dute. Sareak 6.648.491 ale baino gehiago ditu funtsetan, ia 1.195.780 titulu desberdin eta 980.000 bazkide inguru

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 75.000 EUROKO DIRULAGUNTZA ONARTU DU UEMARENTZAT, EUSKALDUN DENTSITATE HANDIA DUTEN UDALERRIETAN EUSKARA INDARTZEKO**

- **Euskara zerbitzuak eskainiko dira horrelakorik ez duten udalerrietan, gazteen hizkuntza aktibazioa sustatuko da eta familia transmisioa bultzatuko da, besteak beste**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 75.000 euroko dirulaguntza zuzena onartu du, bere gaurko saioan, Udalergi Euskaldunen Mankomunitatearentzat (UEMA). Laguntzaren helburua da 2019. urtean arnaguneen eta testuinguru funtzionalen indartzeari eta ahalduntzeari begirako hainbat ekimen bultzatzea. Proiektu horien bitartez euskara zerbitzuak eskainiko dira horrelakorik ez duten udalerrietan, gazteen hizkuntza aktibazioa sustatuko da eta familia transmisioa bultzatuko da, besteak beste.

Proiektu zehatzak bultzatzeaz gain, Eusko Jaurlaritzaren eta UEMAren arteko hitzarmenari esker elkarlana areagotuko da UEMArekin, euskaldunen dentsitate handiagoa duten udalerrietan euskarazko zerbitzuak bultzatuz. Mankomunitateak honako proiektu hauek sustatuko ditu dirulaguntzaren bitartez:

1. Udalergi euskaldunak babesteko prebentzio neurriak hartzen jarraitzea, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) aplikatu beharraz sentsibilizatuz eta ELE aplikatzeko udaletan lana egiten jarraituz.
  - Udalerriko plan eta proiektu esanguratsuenetan ELE aplikatzea
  - ELE metodologia zabaltzeko prestakuntza saioetan parte hartzea
  - ELEa egiteko lanabesa diseinatzeko projektuan parte hartzea
2. Udalergi txikienen kezka sozioekonomikoak detektatu eta esperientzia ezberdinak elkartrukatzea bultzatuko da.
3. Euskara Zerbitzurik ez duten udalei hizkuntza normalizazioan eragiteko zerbitzua eskainiko da.
4. Arnaguneetan prebentziotik garapenera ekimena sustatuko da.
5. Gazteen hizkuntza aktibaziorako proiektua.
6. Familia transmisioa sustatzeko egitasmoa.

## Lana eta Justizia

**EUSKO JAURLARITZAK 460.000 EURO INGURU XEDATUKO DITU  
EUSKADIKO BAKE EPAITEGIEN FUNTZIONAMENDU GASTUAK DIRUZ  
LAGUNTZEKO**

- Diru-laguntzak udalerrien bidez banatuko dira, biztanle-kopurua aintzat hartuta zehaztuta
- Basauriko eta Langraiz Okako udalek, EAeko bi espetxe dauden udalerriek eta Zumarragako udalak, adingabeen zentro itxia dagoen udalerrriak, 1.850 euroko diru-laguntza osagarria jasoko dute
- Eusko Jaurlaritzak 1990az geroztik finantzatzen ditu Bake Epaitegiak

Gobernu-kontseiluak gaur onartu du 459.325 euroko agindu ekonomikoa, Euskadiko Bake Epaitegien funtzionamendu-gastuak ordaintzea ahalbidetuko duena. Diru-laguntzak udalerrien bidez egituratuko dira, biztanle-kopuruaren arabera banatuta. Euskal Autonomia Erkidegoan, guztira, 236 Bake Epaitegi daude:

<b>BIZTANLEAK</b>	<b>ZENBATEKOAK</b>
Biztanle 1 eta 499 bitartean	750 euro
500 eta 999 bitartean	875 euro
1.000 eta 2.999 bitartean	1.850 euro
3.000 eta 6.999 bitartean	2.650 euro
7.000 eta 19.999 bitartean	3.650 euro
20.000 eta 29.999 bitartean	4.625 euro
30.000 eta 39.999 bitartean	5.725 euro
40.000 biztanletik gora	7.425 euro

Gainera, Euskadiko bi espetxe dauden udalerrriek, Basaurik eta Langraiz Okak, eta adingabeen zentro itxia dagoen udalerrriak, Zumarragak, 1.850 euro gehiago jasoko dituzte. Hala bada, honako hauek dira guztizkoak:

- Araba/Álava: 65.175 euro
- Bizkaia: 227.440 euro
- Gipuzkoa: 188.750 euro



Diru-laguntza honi atxikitako udalerriek Bake Epaitegiaren zerbitzuak eskaintzeko erabilitako bitartekoen eta instalazioen memoria esplikatiboa aurkeztu beharko dute datorren urteko lehen hiru hilabeteetan, gauzatutako gastu errealen zenbatekoak ere adierazita.

## **BAKE EPAITEGIAK**

Eusko Jaurlaritzak 1990az geroztik finantzatzen ditu Bake Epaitegien funtzionamendu-gastuak; izan ere, bere eskumenen artean daude Justizia-administrazioaren plangintza orokorra gauzatzea, Bake Epaitegien laguntza-programak kudeatzea eta Bake Justiziaren arloko jarduerak sustatzea.

Bake Epaitegiak dira egitura judizialaren lehen kate-begia, eta herritarrengandik hurbil daudenez, herritarren eta justiziaren arteko harremana auzotasun-harremanaren pareko izatera hel daiteke

## Presidencia

**AYUDA DE 30.000 € PARA LA CELEBRACIÓN DEL I. CONGRESO INTERNACIONAL DE TERRORISMO YIHADISTA, RESPUESTAS CRIMINOLÓGICAS**

El Consejo de Gobierno ha acordado en su reunión de hoy conceder una subvención directa a la Asociación Vasca de Criminólogos- Kriminologoen Euskal Elkarte (AVC-KEE), para la organización del *I Congreso Internacional de Terrorismo Yihadista, respuestas criminológicas*, que se va a celebrar próximamente en Irún. La ayuda asciende a 30.000 euros y será concedida de manera conjunta por la Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación, y el Departamento de Seguridad.

El Congreso se va a celebrar del 11 al 13 de septiembre en el recinto Ficoba de Irún, en el marco de los cursos de veranos de la UPV/EHU, y al mismo asistirá el Lehendakari Iñigo Urkullu.

El encuentro contará con la participación de profesionales de distintas disciplinas -criminología, victimología, antropología, sociología, politología, judicatura, profesionales de la seguridad, psicología, psiquiatría, educación social...- que debatirán sobre el fenómeno del terrorismo yihadista desde diferentes vertientes.

Esta primera edición del congreso ha sido organizada por la Asociación Vasca de Criminólogos y el Instituto Vasco de Criminología, en colaboración con diferentes instituciones públicas y privadas, tanto nacionales como internacionales.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### EL GOBIERNO INCREMENTA EL SUELDO DEL PERSONAL PÚBLICO VASCO EN UN 0,25%

- La subida retributiva tendrá un impacto presupuestario de 5,5 millones de euros y será efectiva en la nómina de este mismo mes de setiembre con retroactividad a 1 de julio de 2019
- Además, antes de finalizar de año, el Gobierno elevará al 1,5% del sueldo mensual la aportación a Itzarri-EPSV

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, el acuerdo que permite materializar una nueva subida salarial, del 0,25%, para el conjunto del personal público de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Las aproximadamente 70.000 personas que trabajan en la Administración General (Lakua), Seguridad, Educación, Justicia y Osakidetza cobrarán, a partir de este mismo mes de septiembre, un 0,25% más. Este nuevo incremento retributivo será retroactivo a fecha 1 de julio de 2019.

Esta subida salarial tendrá un impacto presupuestario de 5,5 millones de euros. Se suma a la subida salarial del 2,25% aprobada en el mes de febrero ([Ley 2/2019, de 14 de febrero, de medidas presupuestarias urgentes para el ejercicio 2019, en materia de retribuciones y otros aspectos relativos a la prórroga](#)) y responde al compromiso adquirido por el Gobierno Vasco de aumentar otro 0,25% adicional tan pronto como tuviera base jurídica sólida.

#### APORTACIÓN ITZARRI-EPSV

Igualmente, el Gobierno Vasco elevará la aportación a Itzarri-EPSV al 1,5% del sueldo mensual tal y como se comprometió con las centrales sindicales con representación en la Mesa General de la Función Pública durante la negociación del marco retributivo para 2019. Esta medida se aprobará en un próximo Consejo de Gobierno antes de fin de año.

#### MESA GENERAL DE LA FUNCIÓN PÚBLICA

El Gobierno Vasco convocará, este mismo mes de setiembre, a las centrales sindicales mayoritarias de la Función Pública a una reunión de la Mesa General para negociar el marco retributivo a incluir en el *Proyecto de Ley de Presupuestos de 2020* que está elaborando el Ejecutivo y que aprobará y remitirá al Parlamento Vasco el próximo mes de octubre.

## Educación

### **606 MILLONES PARA LA FINANCIACIÓN DE LOS CONCIERTOS EDUCATIVOS DE CENTROS DOCENTES**

